

XI. URTEA

31. zenb.

1993 URTARRILA - APIRILA
600 pta. - 28 librea



Itxaropen handiak: bigarren hizkuntzaren
eskurapenaren ikerketa eta ikasgelako irakaslana
Prestakuntzarako ihardunbideak - Elkarrekin lotu
Idazkera lantzen: bi korapilo askagai
Fred Genesee-rekin elkarriketan
Transmisio-kanpaina Eibarren
Halliday-ren gramatika funtzionalerako hurbilbidea

ZUTABE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

Xedeak

ZUTABE euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria bi eremu horietan dihardutenei edo horiekin lanbidezko loturarik dutenei zuzendua dago, helduen euskara-irakasleei batipat. Lauhilabetekari honek ama-hizkuntza eta bigarren hizkuntzen irakaskuntzarekin zerikusirik duten zientzi arloak ditu berezko esparru (Psikolinguistika, Linguistika aplikatua, Andragogia/Pedagogia, Soziolinguistika) eta hizkuntzen irakaskuntzan/alfabetatze-gaietan teoria, teknika eta ikerketak ezagutaraztea helburu nagusi. **ZUTABE**k teoria aplikatua eta praktikaren arteko oreka lortu nahi du, arestian aipaturiko zientziak eta klaseko mundua uztartzeko zubi izan, aplikatua bait da argitalpenaren orientabidea. Ez da lan makala informazio aberatsa eta nork bere burua hobeto presartzeko lantresnak eskaintzea eta ideiak elkartrukatzeke eztabaidagune ireki jori eta bizia izatea. Ba, horixe du **ZUTABE**k erronka. Amaitzeko, esan **ZUTABE**ren zuzendaritza ez dela artikuluetan agertzen diren iritzi eta ideien erantzule.

ZUTABE **erako lankidetzak**

ZUTABEk gogo onez hartzen ditu helduen euskalduntze eta alfabetatzearen arazoari behar bezala aurre egiteko lagun dezaketen ekarpenak. Bertara bidalitako lanek, aldizkariaren orientabidea gogoan hartuz, zerikusi handia izan behar dute euskalduntze/alfabetatze gintzak egunero eta gertutik bizi dituzten gorabeherekin. Helduen euskalduntze- eta alfabetatze-eremuei buruzko ekarpenak nahiago izan arren, aldizkariak ez ditu inondik ere helduez beste gizataldeekin aritzen direnenak baztertzen, baldin eta beste egoera ezberdinetan aritzen direnentzat ere baliagarri eta interesgarriak gertatzen badira.

Lanak taxutzerakoan "Artikulugileentzako irizpideak" izeneko idazkia hartu behar da kontuan. Berau urteroko lehendabiziko alean emango da argitara.

ZUTABEk hemendik dei egiten die euskara-arloan lan egiten duten irakasle, hizkuntz eta hezkuntz teknikari, euskara-arduradun eta unibertsitate-alorreko ikertzaileei, aldizkarian esku har dezaten.

Posta

Editorial-gaien inguruko posta eta harpidetzari buruzkoa honako helbide hauetara igorriko da:

• *Editorial-gaiak:*

ZUTABE
Reina Regente 2-2.a
20003 Donostia
Tlf. (943)291811

• *Harpidetza:*

HABE
ZUTABE (Harpidetza)
Foruen pascalekua 1,2.a
20005 Donostia
Tel.: (943) 429120; Fax: (943) 430162

Zuzendaritza

HABEren Glotodidaktika zerbitzua

Koordinazioa

Euskalduntze saila

Zuzendaritza batzordea

Iñaki Aranberri

Lagungarri Pedagogikoen saileko burua

Pello Esnal

Euskalduntze saileko burua

Boni Urkizu

Euskara ataleko burua

Imanol Irizar

HABE Liburutegiko arduraduna

Koordinatzailea

Joanba Bergara

Euskalduntze saila

1993rako prezioak

Ale bakoitza: 600 pta.- 28 libera

Harpidetza: 1850 pta.

Diseinua

Azalak eta atalburuetako ikonoak:

Figueras Design

(Zedro plaza 2, 1. C

20016 - Donostia)

Inprimategia

Flash Composition, S.L.

Ercilla, 11 - 1.º dcha.

48009 - Bilbao

Legezko Gordailua

SS-550/89

© Autonomi Elkargoko Administrazio Orokorra,
HABE.

I.S.S.N. 0212-5714



Ale honetan

Aurkezpena 1

Aldizkariko bideak 3

Irakurlea mintzo 6

Gela irekia

Puri Sarrionandia "4 ezetz" 12
Miren Gurutze Arrieta Gramatika koloreetan 18

Beste Iturrietatik

Patsy M. Lightbown Itxaropen handiak: bigarren hizkuntzaren eskurapenaren ikerketā eta ikasgelako irakaslane 23
Kevin Smith Coke-ri markoa jartzen 43

Mindegi iraunkorra

Joanba Bergara Prestakuntzarako ihardunbideak– Elkarrekin lotu 47

Euskararen kutxa

Pello Esnal Idazkera lantzen: bi korapilo eta zenbait askabide 57

Egilearen eskutik

M. Jauregi/T. Barrenetxea "Laneko Euskara" Arloko liburuak 64

Solasean

Maria Jesus Espi Fred Genesee-rekin elkarrizketan 68

Kanpainak

Junkal Txurruka Transmisio-kanpaina Eibarren 75

Junkal Txurruka Eibarko guraso eta haurren udalekua Aulestin 84

Bestelako lankidetzak

Pedro Araúz Halliday-ren gramatika funtzionalerako hurbilbidea 87

Gure mundutxo

- HABE argitalpenak 95
- Beste argitalpenak 96
- ZUTABEk jasotako argitalpenak 97

ZUTABE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA



HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria eta PK:

Probintzia:

ZUTABE aldizkaria jaso nahi dut etxean. (Urtean ohizko hiru aleak eta ale monografiko bat: 1.850 pezeta.)
Honela ordainduko dut: Kontu korronte bidez:

Bankua edo Aurrezki-Kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:



Helbide honetara bidali behar da:
ZUTABE aldizkaria
Foruen pasealekua 1, 2.a
20005 DONOSTIA



Aurkezpena

Behar-beharrezko du ZUTABEK irakurlearen partaidetza, honen arazo, kezka eta interesei helduko badie. Maiz galdetu diogu geure buruari, irakurleen interes eta beharrei egokitu nahian, zer-nolako oihartzuna duen aldizkariak beraian. Eta, egia esan, aldizka eta han-hemenka, feedback-apurak jaso ere jaso ditugu, baina ez behar eta nahi adina. Horrexegatik, hutsune hori betetzeko edo, pentsatu dugu aldian behin, bederen, komeni dela irakurleen iritziak biltzea, irakurle beraien eskutik bildu ere, nola ez.

Hori dela eta, laguntza eske gatozkizu ale honetan, aldizkariaren historian estraineko aldiz "Irakurlea mintzo" izeneko galdekizuna luzatuz, galdera-sorta horri erantzuna emango diozulakoan. Zure ekarpena ez da, ez, alferrikakoa izango.

Hori esanda, aurkez dezagun, ohi bezala, esku artean duzun ale honen mamia.

- *Gela irekia.* Bi jokok osatzen dute oraingoan ikasgelan probetxuzko gertatu diren ideia praktikoak edo hainbat arlotan onuragarri izan daitezkeen proposamenak eskaintzea xede duen sail hau. Eduki zehatz batzuk barneratzen laguntzea du helburu "4 ezetz" izenekoak. Bigarrenak, berriz, gramatikako formen zentzua bilatzea eta funtzioetan erabiltzea; euskararen alderdi formalak, semantikoak eta pragmatikoak batera bildu eta jorratzea, alegia. *Trivial* ezagunaren antz handia du seigarren eta zazpigarren urratsekoentzako moldaturiko joko honek.
- *Beste iturrietatik.* Sail honetan bi artikulua bildu ditugu. Luze, trinko eta teorikoa lehenengoa. Labur, arin eta praktikoa bigarrena. Patsy M. Lightbown-ek bigarren hizkuntzaren eskurapenaz nolako ikerketa egin izan den eta egiten ari den berrikusiko du. Gero, orain arteko ikerketatik atera litezkeen jeneralizazioak –onarpen zabalena dutenak, egilearen aburuz– laburbilduko ditu. Eta, azkenik, jeneralizazio hauek bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan aplikatzeko egoiak diren bideak aztertuko ditu. Zail samarra, baina interes handiko artikulua. Bigarren zatia, behintzat, guztiz gomendagarria.

Irakurgaia beren erritmoan eta giro lasaian aztertu eta gozatzeko askatasuna opa die irakasleak bere ikasleei. Baina, aldi berean, beraiak pasartea ulertu dutenentz jakin behar du, eta baita klasea kontrolpean eduki ere.

Dena den, elkargaitzak dirudite elkarren aurkako helburu horiek; irakasleak, "askatasuna" eta "kontrola" elkartu baino gehiago, ito edo blokeatu egiten baititu sarritan, horrela taldea frustratuta utziz.

Blokeo hori apurtzeko, irakurketa-klasea komiki-ariketa bihurtzea iradokitzen du Kevin Smith-ek.

- *Mindegi iraunkorra.* Geure prestakuntzarako saioetan euskara-ikasleei eginarazten dizkiegun zenbait ariketaz baliatzea du helburu “Prestakuntzarako ihardunbideak” izenpean ZUTABE argitara ematen ari den bildumak. *Elkarrekin lotu* deritzan teknika jorratze-
ra dago emana oraingo honetan sail honetako mindegi berria.
 - *Euskararen kutxa.* Lan zaila eta nekeza idazten ikastea. Eta berez zaila dena euskaraz zailago omen, euskal prosa oraindik gordin samarra baitago. Ba, hain zuzen ere, euskal prosa gordin samar horrek sortutako zenbait zailtasun ditu aztergai Pello Esnalek “Idazkera lantzen: bi korapilo eta zenbait askabide” lanean. Atzera-karga deitu dio lehenengo korapiloari, eta pausaldiekin du zerikusia bigarrenak. Hurrengo aleetan saiaturiko da, bi maisu handi lagun, hemen begiz jotako korapiloak askatzen. “Korapilo horiek askatzean, helduago izango da euskal prosa eta eginagoa moldea” dio egileak.
 - *Egilearen eskutik.* Euskara irakasteko metodogintzan urratutako bideak islatu nahi ditu ZUTABEk sail honetan; euskararen irakaskuntzan ezer onik egin bada, besteak beste, tresna horiei esker egin baita. “Laneko Euskara” arloko liburuen nondik-norakoak ditu aztergai ZUTABEk oraingoan, Elhuyarreko Mariaje Jauregi eta Tere Barrenetxea lankideen eskutik.
 - *Solasean.* Fred Genesee Euskal Herrian izan zen 92ko otsailean, Donostia eta Iruñeko hainbat ekintza unibertsitariotan parte hartuz. Bisita hori aprobetxatuz, berarekin elkarriketatu ginen.
 - *Kanpainak.* Aintzat hartzekoak direlakoan, han-hemenka gure artean euskararen alde egindako kanpainen berri eman nahi du ZUTABEk sail honetan. 1989.ean sortutako transmisio-kanpaina deiturikoaren inguruan Eibarren bizi izan duten esperientziak erakutsitakoa azaltzen digu Junkal Txurrukak lehenengo artikuluan. Umeak “B” eta “D” ereduetan zituzten guraso erdaldun eta euskaldun alfabetatugabeei zuzendutako kanpaina honek euskararen transmisioa sortu edota indartzea zuen helburu.
- Bigarren artikuluan Eibarko Udal Euskaltegiko transmisio-kanpainako gurasoekin eta beren seme-alabekin 1991.eko ekainean Austein eginiko esperientzia azaltzen zaigu.
- *Bestelako lankidetzak.* Sail honetako artikulua Halliday-ren gramatika funtzionalera hurbildu nahi gaitu, hiru hizkuntz funtzio azalduz: ideatiboa, pertsonartekoa eta testuala.

* * *

ZUTABEk jasotako argitalpen eta han-hemenka argitara emaniko beste zenbait lanen berri emanez ixten du alea *Gure mundutxo*a sailak.



Aldizkariko bideak

Era ezberdineko lanek dute argitaraleku ZUTABEko hainbat sailetan. Sail batzuk ale guztietan azalduko dira. Beste batzuk, aldiz, behin edo beste. Irakurleak zein artikulugileak berauen izaeraz hobeto jabetzeko edo, hona hemen sail zenbaiti buruzko azalpen labur-laburra.

<i>Ama-hizkuntza</i>	Ama-hizkuntza ikasteko/lantzeko moduak; baita hauen ebaluazioa eta prozesua eraginkorrago egiteko proposamenak.
<i>Beste iturrietatik</i>	Nazioarteko aldizkari espezialduetatik euskaratutako lanak.
<i>Euskararen kutxa</i>	Euskara aztergai duten lanak. Besteak beste, euskararen ezaugarriak, alor honetan ikusten diren maniak, aurriritziak, uste okerrak eta deskuido nabarmenak aztertzen dira bertan. Euskara-irakasleei irizpide sendoak eskaintzea du helburu.
<i>Kultura</i>	Euskal kultura euskalduntze/alfabetatze-prozesuan txertatzeko programak eta alor horretan izandako esperientziak.
<i>Erbesteko Euskal Herrian</i>	Euskara eta euskal kultura bizirik iraun dezan Euskal Herritik kanpoko euskaldunek eginiko ahaleginen azalpena.
<i>Langaiak</i>	Euskalduntze/alfabetatzegintzaren esparruan argitara emaniko baliabide didaktikoen inguruko lanak.
<i>Kanpainak</i>	Gizarteko hainbat arlotan euskararen alde eraturiko kanpainak.
<i>Begiak erne</i>	Euskarari ostiko ederrak ematen zaizkio han eta hemen noiznahi, gure hizkuntza euskaldun jatorrari arrotz eta erabat ulergaitz bihurtzeraino. Sailak iragarki, ohar eta bestelako idazkietan aurkituriko "perlak" islatu nahi ditu.
<i>Iritziak eta eskutitzak</i>	Glottodidaktikaren alorreko gai zenbaiti buruzko gogoetak, aldizkarian argitaraturiko lanei buruzko eskutitzak, artikulugileei erantzuna eman edota galderak eginez, proposamenak...
<i>Solasean</i>	<i>Ikasleak mintzo</i> Ikaslearen esperientziak ikaskuntz prozesuan.

- *Irakasleak mintzo*
Irakasleen esperientziak irakaskuntzako zenbait alorretan.
- *Auzi-mauziak*
Gai eztabaidagarriei buruzko irizpide-bilduma.
- *Egilearen eskutik*
Euskalduntze/alfabetatzegintzaren esparruko liburu, tesi, metodo eta material didaktikoaren inguruko zertzeladak egileen eskutik.
- Bestelako elkarrizketak, irudizkoak barne, eta mahai-inguruak.

<i>Mindegi iraunkorra</i>	Euskara-irakasleen artean elkarlana sortzeko moduko lantresnak (gai batzuen azterketa bideratzeko eskemak, baliabide didaktikoak sortzeko orientabideak...) eta dinamika horrek eraginda mamitu diren esperientziak eta emaitzak.
<i>Irudibidez</i>	Kontzeptuen azalpena, gertaeren azterketa, hizkuntzaren irakaskuntzaren alderdiei buruzko iritziak, irudia eta azalpen laburra uztartuz.
<i>Gela irekia</i>	Ikasgelan probetxuzko gertatu diren ideia praktikoak edo hainbat arlotan onuragarri izan daitezkeen proposamenak: teknika edo ariketa-itxura duten “errezeta” didaktikoak; irakastekniken inguruko ideia praktiko, burutazio emankor eta iradokizun zenbaiten azalpena; esperientziak, arlo eta urrats jakinetan ibilitako bideen azalpena eta balorazioa, alegia. <i>ZUTABEk</i> ikasgelak irekitzeko dei zabala luzatzen du.
<i>Liburuak eta aldizkariak</i>	Liburu, aldizkari eta artikuluen laburpen, aipamen edota kritika; <i>ZUTABE</i> ren esparruarekin nolabaiteko lotura duten hemen bertoko aldizkari espezialduen aurkezpen laburra; <i>HABE</i> Liburutegian jasotako liburu berrien zerrenda gaika antolatutik.
<i>Gure mundutxo</i>	Hizkuntzen irakaskuntzako albisteak, euskalduntze/alfabetatzegintzakoak bereziki: euskaltegiak, argitalpenak (metodoak, baliabide didaktikoak, tesiak...) eta egitasmoak; agenda (bilerak, ikastaroak, ihardunaldiak, kongresuak, erakusketak, bisitak...) “Albistea” gertatu den “tokian” egon denarentzat badago <i>ZUTABE</i> n beronen berriak zabaltzeko aukerarik.
<i>Kezkak eta gatazkak</i>	Klasean izaten diren metodologi eta bestelako auzi, kezka, duda-muda eta katramilen azalpena, baten batek, enbidoari eutsiz, iradokizunen bat egin dezan. Zertan zabilta irtenbide edo argi bila? <i>ZUTABE</i> n azaldu, besterentzat ere ongi etorriko da-ta.
<i>Tarteko hizkuntza</i>	Berezkoa du hutsa ikasleak euskararen ikaste-bidean. Ikasprozesuko pausu beharrezkoa izaki, ez du zertan porrotaren seinale izan behar. Sai-

lak ikaslearen “hutsak” islatu nahi ditu tarteko hizkuntzaren aldeak hobeto ezagutzeko, ez inondik inora ikasle edo beronen hutsari irri egiteko.

Glotodidaktika-hiztegia Aldizkari honetako eta beste zenbaitetako artikuluetan eta liburutan argitara eman eta HABEren Glotodidaktika-hiztegian jaso ez diren zenbait terminoren azalpena.

Definizio dibergenteak Errealitateaz hobeto ohartuko garelakoan, glotodidaktikaren alorreko kontzeptuekiko hurbilpena egin nahi da, ohizkoari ez-ohizko ikuspuntuak begiraturaz. Definizioak jasotzen dira bertan, baina ez “erantzun” zuzen bakarrekoak.

Proposamenak helarazi, ZUTABEk gogokoak dituzun gaiak jorratuko ditu eta.

Irakasleen prestakuntza

- Irakasleen prestakuntzan inputarekin aritzeko moduen azalpena.
- Irakasleen prestakuntzan gainbegiraketa egiteko eta feedbacka emateko erak.
- Alor honetan erabili eta emankorrak izan diren ikasaio edo egitasmoak.
- Ikasaien ebaluazioa.
- Euskara-irakasleen eta euskara ez beste hizkuntzen irakasle-prestatzaileen esperientziak beraien eskutik; baita hizkuntzarekin zerikusirik ez duten prestatzaileen esperientzi bilduma ere.
- Euskara-irakasleen prestakuntza gurean; eta beste hizkuntzatarako irakasleena, bai Euskal Herrian, baita atzerrian ere.

Ikasten iaio Zer ikas dezakegu hizkuntz ikasle onarengandik? Ikasle ona izateko, trebatu beharrean aurkitzen da ikaslea. Sailak prestakuntza horretarako programak eta emaitzak ditu aztergai.

Ikerketak Garrantzi handiko ikerlanen azalpena.

Bestelako lankidetzak Orain arte aipaturiko sailetan sartzen ez diren idazlanak. Artikuluok orientazio akademikoa dutenez, lan nahikoa sakonak biltzen dira sail honetan, honako arlo hauen ingurukoak besteak beste: Psikolinguistika, Andragogia, Pedagogia, Didaktika, Soziologia, Xede berezietarako hizkuntza; baita, irakaskuntzarekin zuzenean zerikusirik ez izan arren, hizkuntz irakaskuntzarako aberasgarri izan daitezkeen hainbat arlotako ekarpenak ere.

Behar-beharrezko du ZUTABEk zure partaidetza, irakurle, zure arazo, kezka eta interesei helduko badie. Maiz galdetu diogu geure buruari, irakurlearen interes eta beharrei egokitu nahian, zer-nolako oihartzuna duen gure aldizkariak berarengan. Eta, egia esan, aldizka eta han-hemenka, feedback apurrik jaso ere egin dugu, baina ez behar eta nahi adina. Horrexegatik, hutsune hori betetzeko edo, pentsatu dugu aldian behin komeni dela irakurleen iritziak biltzea, irakurle beraien eskutik bildu ere, nola ez.

Eta hori dela eta, laguntza eske gatozkizu, ondorengo galdekizunari erantzuna emango diozulakoan. Mila esker aldeztu aurretik egingo duzun ahaleginagatik.

Behar beste galdekizun ez baduzu, honen kopia atera eta kitto. Bestalde, erantzuten hasi baino lehen, irakurri galdesorta osoa. Eta galdekizunari erantzun ondoren, honako helbide honetara bidali: ZUTABE, Reina Regente 2-2.a, 20003 Donostia.

Irakurlearen profila

1 – Zer zara zu:

- | | |
|--|---|
| ☐ primariako irakasle? | ☐ lantegi edo enpresa bateko irakasle? |
| ☐ sekundariako irakasle? | ☐ irakasleen trebatzaile? |
| ☐ unibertsitateko irakasle? | ☐ edo beste? _____ |
| ☐ helduen irakasle euskaltegi batean? | |

– Non egiten duzu lan:

- | | |
|--|--|
| ☐ zentru pribatuan? | ☐ zentru publikoan? |
|--|--|

– Euskaltegi batean baldin bazaude irakasle, nolako euskaltegian:

- | | |
|---|---------------------------------------|
| ☐ publikoa? | ☐ homologatua? |
| ☐ hitzarmenezkoa ? | ☐ librea? |

– Eta zein urratsetan ari zara irakasten?

- ☐ 1. ☐ 2. ☐ 3. ☐ 4. ☐ 5. ☐ 6. ☐ 7. ☐ 8. ☐ 9. ☐ 10. ☐ 11. ☐ 12.
- | | |
|--|--|
| ☐ alfabetatzearen 1. mailan | ☐ alfabetatzearen 2. mailan |
|--|--|

Eta beste _____

– Euskaltegian ari ez bazara, zein mailatan erakusten duzu euskara?

eta zein da ikasleen adina? _____

– Azaldu zein(tzuk) den/diren zeure ardura(k) lan egiten duzun zentruan:

2 Zure jaioterria: _____ (Probintzia) _____

3 Sexua eta adina

Sexua: ☐ emakumezkoa ☐ gizonezkoa

Adina: ☐ 25etik behera ☐ 25-35 ☐ 36-45 ☐ 46-55 ☐ 56-65 ☐ 65etik gora

4 ☐ euskaldun zaharra ☐ euskaldun berria

5 Zenbat urte daramazu euskararen irakaskuntzan?

☐ 5etik behera ☐ 5-10 ☐ 11-20 ☐ 20tik gora

6 Ikasketak eta titulazioa

7 Zer-nolako prestakuntza izan duzu euskara-irakasle izateko?

☐ magisteritza ☐ hasi aurreko ikastaroa ☐ nere kabuz (azaldu nola)

☐ bat ere ez ☐ eta beste _____

8 – Etengabeko prestakuntzari dagokionean, nola jazten duzu zeure burua?

a. ikastaro laburretan parte hartuz: ☐ maiz ☐ batzuetan ☐ gutxitan ☐ inoiz ez

b. zentruan bertan prestakuntzarako saioak eginez: ☐ maiz ☐ batzuetan

☐ gutxitan ☐ inoiz ez

c. esperientziak trukatzuz: ☐

d. hitzaldietara joanez: ☐ maiz ☐ batzuetan ☐ gutxitan ☐ inoiz ez

e. irakurgaien bidez: ☐

f. eta beste _____

– Erabili al duzu ZUTABE zeure lankideekin?

☐ maiz ☐ batzuetan ☐ gutxitan ☐ inoiz ez

– Beste aldizkariren bat irakurri ohi duzu? ☐ ez ☐ bai Zein(tzuk)?

Aldizkaria eskuratzeko bidea

9 ZUTABEren harpidedun al zara? ☐ bai ☐ ez

10 Harpidedun baldin bazara,

a. Noiztik? _____

b. Harpidedun izan baino lehen, lantokian edo beste nonbaiten eskuratzen baldin bazenuen gero irakurtzeko, noiztik irakurri duzu ZUTABE?

c. Beste inork irakurri ohi du zure alea? ☐ ez ☐ bai (esan zenbat) _____

d. Aurtengo harpidetza amaitzean segituko al duzu harpidedun izaten?

☐ bai ☐ ez

Zergatik? (iradokizunak ondotxo eskertuko genituzke) _____

11 Harpidedun ez baldin bazara,

a. non eskuratzen duzu aldizkaria? _____

b. zenbat ale irakurtzen duzu urtean? ☐ bat ☐ bi ☐ hiru

c. zenbat jendek irakurtzen du ale hori gutxi gorabehera? _____

Irakurgaiak

12 Zerrendatu ZUTABE irakurtzeko dituzun arrazoiak:

- 13 Era ezberdineko lanek dute argitaraleku ZUTABEko hainbat sailetan. Sail batzuk ale guztietan azaldu ohi dira. Beste batzuk, aldiz, behin edo beste. Zuk zein ordenatan irakurri ohi duzu aldizkaria? Zenbatu irakurri ohi dituzun sailak aipatu ordena hori azaltzeko moduan (hasi 1 zenbakiaz). (Nahi izanez gero, *Aldizkariko bideak* atala irakurri lehenbizi, 1991.eko urtearen geroztik urteko lehen alean argitara eman ohi duguna.)

- | | | |
|---|---|--|
| ☐ Ama-hizkuntza | ☐ Iritziak eta eskutitzak | ☐ Tarteko hizkuntza |
| ☐ Beste iturrietatik | ☐ Solasean | ☐ Glotodidaktika-hiztegia |
| ☐ Euskararen kutxa | ☐ Mindegi iraunkorra | ☐ Definizio dibergenteak |
| ☐ Kultura | ☐ Irudibidez | ☐ Irakasleen prestakuntza |
| ☐ Diasporan | ☐ Gela irekia | ☐ Ikasten iaio |
| ☐ Langaiak | ☐ Liburuak eta aldizkariak | ☐ Ikerketak |
| ☐ Kanpainak | ☐ Gure mundutxo | ☐ Bestelako lankidetzak |
| ☐ Begiak erne | ☐ Kezkak eta gatazkak | |

- 14 Gehienetan zer irakurtzen duzu? ☐ artikulua guztiak ☐ artikulua gehienak
☐ gutxi batzuk

- 15 Goian esan bezala, hainbat gairi buruzko artikulua eman ohi ditu argitara ZUTABEk. Esaterako:

Ikasteknikai buruzkoak	1	2	3	4	5
Irakaskuntzari buruzko bestelakoak	1	2	3	4	5
Irakaslegoaren prestakuntzari buruzkoak	1	2	3	4	5
Euskara edota hizkuntz eduki batzuei buruzkoak	1	2	3	4	5
Tesi edo proiektu zenbaiti buruzkoak	1	2	3	4	5
Liburu-aipamenak	1	2	3	4	5
Elkarriketak	1	2	3	4	5
Iritziak	1	2	3	4	5

Zer irizten diozu bakoitzari? Egin bakoitzaren balorazioa 1etik 5erako eskalan (1: interes gutxiena; 5: interes handiena) dagokion zenbakia borobilean sartuz.

- 16 Atal berriren bat sartuko zenuke? Zein(tzuk) _____

17 Zeintzuk dira azken hiru aleetan baliagarrien gertatu zaizkizun artikulua? Eta gutxien?

18 *Topikoak.*– Zeri buruzko artikulua aurkitu nahiko zenituzke aldizkarian? Zerrendatu interesatzen zaizkizun gai horiek.

19 *Artikuluei buruzko beste xehetasunak.*– Zer irizten diozu aldizkariari ondoko ezaugarrioi dagokienez?

a. Sail-kopurua: ☐ zabalegia ☐ neurri-neurrikoa ☐ estuegia

b. Aipatu sail horietako edukien kopurua: ☐ gehiegi ☐ orohar nahiko ondo
☐ gehiago behar da

c. Kalitatea: ☐ oso ona ☐ ona ☐ onargarria ☐ onargaitza

d. Artikuluen luzera: ☐ labur samarra ☐ neurri justukoa ☐ luzeegia

Eta beste _____

e. Zailtasuna: ☐ irakurterraza ☐ nahiko erraza ☐ irakurtzeko zaila

Eta beste _____

f. Praktikotasuna: ☐ oso praktikoa ☐ teoria eta praktika orekatua ☐ teorikoegia

Eta beste _____

20 Aldizkariaren diseinuari buruzko iruzkinik egin nahi al duzu?

21 Beste iruzkinen bat erantsi nahi al duzu? _____
